



# IBAR NAGUSIEN ETXEA ELKARTEA

## **EGUNEKO ZENTROAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA**

## **ERROMOKO EGUNEKO ZENTROAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA**

### **EGUNEKO ZENTROA. EZAUGARRIAK ETA KUDEAKETA**

Funtzionamendu Araudi hau Erromon Nagusientzat dagoen Eguneko Zentroarentzat egin da; zentroa Getxoko Lope de Vega kaleko 12. zenbakian aurkitzen da, eta 1987. urteko azaroaren 21ean inauguratu zen.

Lope de Vega kaleko 12. zenbakian dagoen Erromoko Eguneko Zentroaren erakunde titularra Getxoko Udala da, eta zentroaz Ibar Nagusien Etxea adinekoen elkarte arduratzen da lagapen-araubidean; lagapen hori urtero berritu daiteke, hitzarmenaren bitartez.

Dokumentu honen helburua da Egoitzaren barne funtzionamendurako arauak jasotzea; baita ere, bazkideen eskubideak eta betebeharrak, zuzendaritza-organoak eta ordezkaritza eta haiekin lotutako jarduerak, bazkide diren pertsonen arteko giza harremanak optimizatze aldera, zentroaren martxa eta funtzionamendu egokia ziurtatzearen.

Zuzendaritza Batzordeak eta osatzen duten pertsona bazkideek lankidetzaz-ildoak sustatu behar dute adinekoen arloan lan egiten duten Institutio publikoekin eta pribatuekin, Zentroan bizikidetzaz atseginagoa eta zuzenagoa izan dadin.

Eguneko Zentroa establezimendu publikoa da, beharrezko arreta eta laguntza emateko nahiz bizikidetzaz errazteko eta pertsona bazkideen parte-hartzea eta gizarteratzea bultzatzeko helburua duena. Zentroaren esku-hartze eremuan Getxoko udalerrira sartzen da.

Egoitzan gizarte-zerbitzuak, laguntza-zerbitzuak, zerbitzu kulturalak eta dibertimenduzkoak eskaintzen zaizkie pertsona bazkideei. Halaber, kultur arloko informazio eta hedapen maila altuagoak lortzeko jarduerak egiten dira, bizikidetzaz eta olgetarako jarduerak, norberaren eta komunitatearen parte-hartzea sustatzeko jarduerak, trukatzeko eta elkar laguntzeko ekintzak eta, oro har, bizimodua pixkanaka hobetzeko eta kokatuta dagoen inguruan gizarteratzeko jarduerak.

Hori guztia dela-eta, Komunitatearen baliabide moduan hartzen da orokorrean, funtsezko helburua kaltetu gabe, biztanleriaren beste sektore batzuei gizarte-zerbitzuak eskaintzeko laguntza ematea, toki-eremuan eta Erakunde titularrak ezarritako baldintzetan, Zuzendaritza Batzordearen adostasunarekin.

Erromo Eguneko Zentroaren kudeaketa Ibar Nagusien Etxea elkarteko Zuzendaritza Batzordearen eta Zentroaren zuzendaritzaren artean egingo da, azken hori Getxoko Udalaren ordezkaria eta zentroaren funtzionamendu egokiaren arduraduna baita.

Titulartasuna dela-eta, Eguneko Zentroaren Zuzendaritzaren funtzio orokorrak hauek izango dira:

- Udala ordezkatzea Eguneko Zentroaren Zuzendaritza Batzordean.
- Zuzendaritza Batzordearekin batera lan egitea Zentroaren funtzionamendua arautzen duten xedapen guztiak aplikatzeko.
- Aholkularitza eta laguntza eskaintzea haren ahalmenen barruan Partaidetza Organoei, Zentroaren baliabide pertsonal eta tekniko guztien bitartez.
- Zuzendaritza Batzordearen adostasunarekin, lanak bultzatzea, antolatzea eta koordinatzea, Elkartearen eta Udalaren helburu komunak lortze aldera.
- Pertsona bazkideen eta zentroko langileen ordezkarien arteko lankidetzak sustatzea, zentroak behar bezala funtziona dezan.
- Zuzendaritza Batzordeari dagozkion xedapen guztiak transmititzea eta egiten diren jarduerak guztien inguruko informazioa ematea eta jasotzea.
- Organikoki eta funtzionamendu aldetik gainera daudenek agindutako beste edozer egitea, Zentroaren premiei dagokienean.

Ordezkaritza kanpoan edo gaixorik egonez gero, Gizarte Zerbitzuetako Arduradun Teknikoak izendatuko du Zentroaren Zuzendaritzaren behin-behineko ordezkari, eta horren berri emango zaio Zuzendaritza Batzordeari.

Zentroan zerbitzuak prestatzen dituzten udal-langileek beren funtzioak beteko dituzte espezifikoki aplikatu dakizkiekeen arauen arabera eta Zentroaren Zuzendaritzak emandako arauak kontuan hartuta. Giza baliabideen arduraduna izanik, Zuzendaritzak emango die oniritzia langileen lizentzia eta oporrei.

Zentroan zerbitzuak ematen dituzten enpresa esleipendunek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordearekin nahiz Udalarekin kontratuan adostutako arauak; beraz, kontratuko baldintzetan hitzartutakoa betetzen den kontrolatzeko erantzukizuna Zuzendaritza Batzordeak izango du, Zentroaren Zuzendaritzarekin batera.

## I. KAPITULUA: **PERTSONA BAZKIDEAK**

### **1. Artikulua**

Ibar Nagusien Etxea Elkartekoa izateko, ondorengoak bete behar dira:

- Getxoko udalerrian erroldatuta egotea, 60 urtetik gorakoa izatea eta Zentroko bizikidetzak normala aldatzeko moduko gaixotasunik ez edukitzea.
- Halaber, Elkartekoak izan daitezke 50 urtetik gorako pertsonak, Guztizko edo Erabateko Baliaezintasun Iraunkorreko pentsioa, Erretiro Aurreratua, Alarguntza-pentsioa edo antzekorik kobratzen dutenak, betiere norberaren edo besteren kontura lanik egiten ez badute.
- Izaera hori ere izan dezake bazkidearen zuzenbidezko edo izatezko ezkontideak, eta izaera horri eutsiko dio bazkidea hiltzen bada eta alargunak dagozkion pentsioa jasotzen badu.

### **2. Artikulua**

Salbuespen gisa, bazkide-izaera eman ahal izango zaie eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenei, Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen badu, eskatzailearen egoera pertsonal eta sozial zehatzak kontuan hartuta.

### 3. Artikulua

Pertsona kide bakoitzari bazkide-izaera egiaztatzen duen txartela emango zaio. Instalazioak erabiltzeko eta Zentroko jarduera eta zerbitzuetarako, bazkideek bazkide-txartela aurkeztu behar dute nahitaez.

### 4. Artikulua

Ibar Nagusien Etxea Elkarteko kide izatea galduko da ondorengo arrazoiak medio:

- Norberak eskatuta
- Diziplina-zehapen bidez
- Heriotzarenatik
- Zentroko ohiko bizikidetzat aldatuko duen eritasun infekzio-kutsakorra edo psikopatia izateagatik.

## II. KAPITULUA PARTE HARTZEKO ETA ORDEZKATZEKO ORGANOK

### 5. Artikulua

Parte hartzeko eta ordezkatzeko Elkarteak dituen organoak Batzar Nagusia eta Zuzendaritza Batzordea izango dira, hurrenez hurren.

#### Batzar Nagusia

### 6. Artikulua

Batzar Nagusia osatuko dute Ibar Nagusien Etxea Elkarteko bazkide guztiek, eta hitzarekin eta botoarekin jardungo dute.

Urtean behin bilera arrunta egingo du, eta ezohiko bilerak behar diren guztietan, Zuzendaritza Batzordeak gehiengo soilarekin hartutako erabakiaren bidez edo bazkideen %15ak eskatuta.

Batzarraren deialdia egingo du Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaritzak, edo, hori ez badago, Batzorde Kudeatzaileak edo Zentroaren Zuzendaritzak, gutxienez zazpi eguneko aurrerapenarekin. Deialdiaren berri emango da Zentroko iragarki-taulan, eta bileraren izaera agertuko da. Bilera ezohikoa baldin bada, Batzordearen erabakia medio edo bazkide-kopuru batek eskatuta ote den adieraziko da. Edonola ere, bileraren eguna, lekua, ordua eta gai-zerrenda zehaztu beharko da.

Batzarra formalki osatuta geratuko da lehenengo deialdian gutxienez bazkideen %50 bertaratu bada; bigarren deialdia, berriz, egin egingo da bertaratuen kopurua erreparatu gabe eta gutxienez lehenengo deialditik ordu erdira. Bigarren deialdian hartutako erabakiak lotesleak izango dira gainerako bazkideentzat.

Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaritzak zuzenduko du, eta horrek Idazkaritzaren laguntza izango du; horren agintaldia Batzarra amaitzean bukatuko da. Hautapen hori eskua altxatuta egingo da, hautagaiak alde aurretik aurkeztuta.

#### **Batzar Nagusiaren ahalmenak hauek izango dira:**

- Zentroaren aurrekontuko diru-izendapena ezagutzea.
- Zuzendaritza Batzordeak aurkeztutako urteko programak onartzea, eta aisialdiko jarduera, kultur jarduera eta animazio eta lankidetzat sozialeko jardueren artean behar bezalako proportzioa izatea zaintzea.

- Zuzendaritza Batzordeak eta Zentroaren Zuzendaritzak Zentroaren funtzionamenduaren inguruan proposaturiko arauen proiektuak onartzea.
- Bertaratutako bi herenaren gehiengoarekin erabakitzea agintaldia baliogabetzea Batzordearen barruko karguei, betiere justifikatutako arrazoa egonez gero eta Batzarraren deialdian gai-zerrendako puntu bat bezala agertzen bada.
- Bertaratutako erdiak gutxienez eskatuta, gai-zerrendan sartu ahal izango dira beharrezkotzat jotako puntuak.
- Hiru bazkidek osatutako Batzorde Kudeatzailea izendatzea, Zuzendaritza Batzordearen eskumenez arduratzeko, Batzordea eratze dagoenean edo desegiten bada.
- Aurrerantzean eman dakioken beste edozein.

## **Zuzendaritza Batzordea**

### **7. Artikulua**

Honako hauek osatuko dute:

- a) Bazkideen hamar ordezkari, bazkideek zuzenean, modu askean eta isilean hautatuta, ezarritako prozedurari jarraiki.
- b) Erromoko Eguneko Zentroaren Zuzendaritzak Dinamizazio Soziokulturaleko teknikariarekin batera, eta hitzarekin baina botorik gabe jardungo dute.

Lehendakaritza, Lehendakariordetza, Idazkaritza eta Diruzaintzako karguak Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonen artean hautatuko dira, kargu bakoitzak banako botoa emanda. Gainerako ordezkariak kideak izango dira. Guztiek hitza eta botoa izango dituzte, eta erabakiak gehiegi soilaz hartuko dira; berdinketa gertatuz gero, Lehendakaritzaren botoaren bidez erabakia hartuko da.

Zuzendaritza Batzordeak bilera arrunta egingo du hilean behin eta ezohiko bilerak behar diren guztietan, Lehendakaritzak erabakita edo kideen erdiak idatziz eskatuta, edo, hala behar izanez gero, Zentroaren Zuzendaritzak erabakita.

Bilera baliozkotzat emango da kideen erdia gehi bat biltzen direnean.

Deialdia Lehendakaritzak egingo du gutxienez berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin, eta bilera-eguna, gai-zerrendaren proposamena eta bilera-tokia eta ordua adieraziko ditu.

Zuzendaritza Batzordeak bi urteko agintaldia izango du, eta urtero berrituko da Batzordearen erdia; dena den, kideak berriro ere hautatuak izan daitezke Batzar Nagusiak komenigarritzat jotzen duen guztietan. Dimisioa aurkeztuz gero, hiru pertsonen osatutako Batzorde Kudeatzailea izendatuko du Batzar Nagusiak, eta Zuzendaritza Batzordearen funtzio berak izango ditu hurrengo hauteskundeak egin arte; hauteskundeak ahalik eta azkarren deituko dira.

Eguneko Zentroaren erakunde titularrak Zuzendaritza Batzorderako hauteskundearen deialdia sustatuko du, batzordea eratuta ez dagoen kasuetan.

### **Zuzendaritza Batzordeak hauteskundeak deituko ditu:**

- a) Urtero, ateratzen diren pertsonen plaza hutsak betetzearren.
- b) Batzar Nagusiak eskatuta.

- c) Egoera ezberdinak medio dimisioa edo baja gertatzen denean eta bazkideen ordezkarien %50 baino gehiago falta direnean eta ordezkorik ez dagoenean, hauteskunde partzialak egin ahal izango dira agintaldia osatu arte geratzen den denboraldirako.

### **Zuzendaritza Batzordearen ahalmenak hauek dira:**

- Zentroak funtzionamendu egokia izaten ahalegintzea, bere eskumenaren barruan, haren ardurapean duen funtzioa hobeto betetze aldera, Batzar Nagusiaren eta Zentroaren Zuzendaritzaren arabera.
- Jardueren urteko programak egitea eta proposatzea, horien inguruan bazkideen irizpideak jasotzea eta horiek garatzen laguntzea eta betetzen diren ikustea. Programen barruan, aisialdiko jarduera, kultur jarduera eta animazio eta lankidetzazko sozialeko jardueren artean behar bezalako proportzioa izatea.
- Zentroko jardueren aurrekontu-proiektuaren zirriborroa nahiz onartutako zenbatekoa ezagutzea eta horren berri ematea; ondoren, segimendua eta premien proposamenak egitea.
- Urtero txostena egitea nolako kudeaketa garatu den Batzar Nagusiak jakin dezan, eta arazoak eta komenigarritzat jotako irtenbideak azaltzea.
- Funtzioak garatzeko lan-batzordeak eratzea. Batzorde horiek bazkideek osatu beharko dituzte.
- Bazkideen artean bizikidetzazko harreman parte-hartzaileak eta demokratikoak izatea. Hirugarren Adinekoen erakundeek, beste talde edo biztanleria-sektore batzuenak, jarduerak egin ahal izango dituzte Zentroaren barruan. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak baimena eman beharko du, eta jarduera horiekin ez da Zentroaren beraren ohiko garapena zailduko ez eta funtsezko helburua kaltetuko ere.
- Araudiak ezarritako epeen barruan, hauteskundeak deitzea Zuzendaritza Batzordean bazkideak ordezkatzeko eta kideen artean Lehendakariitza, Lehendakariordetza, Idazkaritza eta Diruzaintzako karguak hautatzea. Karguren batek dimisioa aurkeztuko balu edo behin betiko baja emango balu, Zuzendaritza Batzordeak gainerako kideen artean hautatuko du.
- Funtzionamendurako arauen proiektuak eta arau horiek aldatzeko proiektuak egitea, Batzar Nagusiak onar ditzan, ondoren Zentroaren Erakunde titularrari bidaltzeko, hala badagokio, berreste aldera.
- Sarien eta zigoren inguruan dagozkien erabakiak hartzea, VI. kapituluan ezarritakoari jarraiki.
- Zerbitzuen prezioak onartzea eta horiek emateko araubidea finkatzea, kasu bakoitzeko kontratuko klausulen barruan.
- Pertsonen arteko solidaritatea bultzatzea; halaber, komunitatean eta Gizarte Zerbitzuen tokiko sarean parte hartzeko jarduerak sustatzea.
- Adineko pertsonentzat dauden bitartekoak, Zentroak eta Elkarteak eskaintzen dituzten prestazioak eta dauden baliabideak hedatzea.
- Bazkide-izaera onartzea kasu berezietan.

- Batzar Nagusiaren akordioak gauzatzea.
- Zentroaren Zuzendaritzaren oniritziarekin, Eguneko Egoitza irekitzeko eta ixteko ordutegia zehaztea. Ordutegia aldatu edo eten ahal izango da ordu edo egun batzuetan, aurreikus daitezkeen edo ezin daitezkeen gertaera bereziak direla-eta horrela egin behar izanez gero.
- Erakunde titularrari aurrerantzean eman dakioken beste edozein.

### **Zuzendaritza Batzordeko Lehendakariari dagokio:**

- Zentroaren ordezkartza izatea, bereziki ekitaldi ofizialetan, aisialdi-jardueretan, kulturaletan eta lankidetzaz-jardueretan, eta bazkideak ordezkatu behar diren ekitaldi guztietan.
- Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileren deialdia egitea eta horien gai-zerrenda finkatzea. Aurkeztutako gai-zerrenda horretan, Batzarrak eta Zuzendaritza Batzordeak beste puntu batzuk sartu ahal izango dituzte.
- Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren bilerak zuzentzea eta eztabaidak moderatzea; era horretan, edozein gai behar adina eztabaidatu dela ikusten denean ohartaraztea.
- Zentroaren helburuak betetzen lagunduko duten prestazioak eta zerbitzuak kontratatzea.
- Baliozko moduan adostutako ordainketak agintzea eta/edo egitea, Bankuko Bulegoetan kontuak irekitzea edo ixtea.
- Zuzendaritza Batzordearen eskumenekin zuzenean lotura duten zirkularrei eta instrukzioei buruzko informazioa jasotzea; era berean, informazio hori transmititzea Batzordeko gainerako kideei.
- Araudi honetako VI. kapituluaren ezarritakoaren arabera, Zuzendaritza Batzordeari dagozkion eskumenen barruan Batzordeak hala erabakita, bazkideei ezarritako zigorrak aplikatzea.
- Harreman publikoekin zerikusia duen guztia, zentro publikoetan nahiz pribatuetan. Dohainak, kolaborazioak, jarduerak, e.a. lortzeko behar diren kudeaketak egitea, Elkartearen eta Eguneko Zentroaren onerako.
- Ahalmen horiek guztiak Lehendakariordetzari emango zaizkio, Lehendakaritza kanpoan, gaixo edo hutsik dagoenean.

### **Diruzaintzak funtzio hauek izango ditu:**

- Zuzendaritza Batzordeak baimendutako ordainketak egitea.
- Finantza-erakundeetan kontuak irekitzea edo ixtea, egoki jotzen denean, Batzordeak aldeztu aurretik onartuta eta Lehendakaritzaren sinadura komunitarioarekin, bien erabilera bereizigabearekin.



- Sarrerak eta ordainketak egitea eta egindako horien berri ematea. Sarreren eta gastuen urteko aurrekontua egitea. Aurreko urteko kontuen egoera zein den azaltzea eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea, Batzordeak, aldi berean, Batzar Nagusiaren esku uzteko, onar dezan.

#### **Idazkaritzak funtzio hauek izango ditu:**

- Bileren akta egitea. Aktan, Lehendakaritzaren nahiz bertaratutako kideen oniritzia jasoko da.
- Batzordearen erabakien ziurtagiriak egitea, hala behar denean eta horretarako eskatua izan denean.

#### **Batzordeko pertsona kideei dagokie:**

- Lehendakaritzari proposatzea Batzordearen eta Batzarraren bileren gai-zerrendan zer gai sartu behar diren.
- Zuzendaritza Batzordeak agindutako lan-batzordeak zuzentzea eta horien bozeramaile izatea, eta Zuzendaritza Batzordeari jakinaraztea hartutako akordio guztiak, behin betiko onartuak izan daitezzen.
- Zuzendaritza Batzordeko karguei laguntza eskaintzea.
- Etabaidetan parte hartzea eta akordioak bozkatzea.
- Zentroan egiten diren ekitaldi eta jarduera guztien inguruko informazioa jasotzea.

Zuzendaritza Batzordeko kideek ez dute inolako ordainik jasoko funtzioa betetzeagatik, baina funtzioak betetzeko edo Batzordeak agindutako jarduera zehatzetarako egin beharreko gastuak haiei ordaintzeko eskubidea izango dute, behar bezala justifikatuta, eta Batzordeak espresuki ezarritako zenbateko eta kontzeptuen izenean.

Inmunitaterik ere ez dute izango betebeharrak orokorreki eta bazkideei aplikatu dakizkiekeen falten araubideari eta zigorreki dagokienean.

### **III. KAPITULUA: PERTSONA BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **Eskubideak**

##### **8. Artikulua**

Pertsona bazkideek eskubidea izango dute Zentroko instalazio eta zerbitzu guztiak erabiltzeko, horretarako ezarritako arauen arabera.

Zehazki, honako hauek egiteko aukera izango dute:

- a) Batzarretara joatea eta etabaidetan parte hartzea hitzarekin eta botoarekin.
- b) Zentroan jasotako argitalpen-mota guztiak eskuratzea.
- c) Antolatzen diren jardueretan parte hartzea eta Zuzendaritza Batzordeak laguntza ematea horiek garatzeko dituen ezagutza eta esperientziarekin.



- d) Eratuko diren Batzordeetan parte hartzea.
- e) Idatziz aurkeztea Zuzendaritza Batzordeari edo, haren lekuan, Zentroaren Zuzendaritzari zerbitzuak hobetzera zuzendutako edozein iradokizun, erreklamazio edo premia arrazoitu. Idatzia behar bezala identifikatzea izena eta bazkide-zenbakia jarrita, eta iradokizunen postontzian uztea eta/edo AKI (Abisuak, Kexak eta Iradokizunak) udal-sistemaren bitartez aurkeztea. Betekizun hori betetzen ez duten iradokizunak ez dira kontuan hartuko.
- f) Zentroaren eremuan ezarritako zerbitzuak eta prestazioak jasotzea eta, zehazki, antolatu edo egingo diren kultur, arte, olgeta, kirol edo dibertimendu soileko jardueretan parte hartzea.
- g) Lurralde Historikoko beste Zentroen eta Kluben zerbitzuak eta truke akordio edo hitzarmenen arabera sinatutako beste batzuenak erabiltzea.
- h) Hautesle eta hautagarri gisa parte hartzea Zentroaren hauteskunde-prozesuetan Elkartearen bitartez.

## 9. Artikulua

### **Betebeharrak**

Pertsona bazkideek ondorengo betebeharrak errespetatu beharko dituzte:

- a) Funtzionamendurako Araubide hau ezagutzea eta betetzea; baita ere, Zuzendaritza Batzordearen akordioak eta instrukzioak eta, behar izanez gero, Zentroaren Zuzendaritzarenak ere bai. Inola ere ezingo da ezjakintasuna alegatu egin daitezkeen falten eta horien ondorioz sor daitezkeen zehapenen aurrean. Zehapenak Araudi honetako VI. kapituluan agertzen dira (Sariak, faltak eta zehapenak).
- b) Zentroaren instalazioak behar bezala erabiltzea. Bazkide guztiek errespetatu eta zaindu behar dituzte Zentroan dauden zerbitzu guztiak.
- c) Bizikidetzara-arauak betetzea eta elkarrekiko errespetua izatea Zentroaren barruan eta Zentroaren jarduerekin lotutako beste edozein tokitan.
- d) Zerbitzuen zenbatekoa behar den garaian ordaintzea, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera.

### **BIZIKIDETZAKO OINARRIZKO ARAUAK**

- Bazkideen arteko bizikidetzara ona izaten ahalegintzea; hortaz, bazkideen portaera zuzena izango da, Egoitzaren barruan giro ona izan dadin.
- Oihuak, eztabaida beroak, biraoak, modu txarrak eta barneko harremanak hondatu ditzaketen beste ekintza batzuk saihestea. Era berean, Egoitzaren ardura dutenei begirunea gordeko zaie; tartean, Zuzendaritza Batzordea, Zentroaren Zuzendaritza eta langileak eta zerbitzu ezberdinen emakidadunak.
- Bakoitzak uneoro garbitasun-mailarik handiena izatea. Beharrezkoa ikusten bada, kasu jakin batzuetan gizarte-zerbitzuei jakinaraziko zaie.

- Ezin da erre Eguneko Zentroko instalazioetan.
- Lurrera ez botatzea inolako zaborrik eta paperik, ezta txisturik ere.
- Komun eta konketetan behar den garbitasuna eta higieena izatea.
- Egoitzaren barruan ezingo da dirua jokatu edo diru-apusturik egin; bai, ordea, edariak edo zenbateko oso txikiak, jokalarien arteko eragingarri gisa.
- Isilik ibiltzea gainerako pertsonak ez gogaitzeko Telebista gelan, Liburutegian eta hitzaldiak edo antzeko jarduerak egiten direnean.
- Jarrera eta postura zuzena izaten ahalegintzea aulki eta sofetan, erdi lo egon gabe.
- Ez jatea mostradoretik edo jantokiko mahaietatik kanpo, sofetan, besaulkietan edo bestelako gela edo aretoetan, Zuzendaritza Batzordeak antolatutako gertaera ofizialen kasuan izan ezik.
- Egoitzan ezingo dira sartu txakurrak edo animaliak, "itsuaurreko" txakurrak bezala identifikatutakoak kenduta.

#### IV. KAPITULUA: **EGOITZA ETA EGOITZAKO ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOAK**

##### **10. Artikulua**

Egoitza egunero irekita egongo da Zuzendaritzak Zentroaren Zuzendaritzaren oniritziarekin zehaztutako orduetan. Ordutegia aldatu edo eten ahal izango da ordu edo egun batzuetan, aurreikus daitezkeen edo ustekabekoak diren egoerek horretara derrigortuz gero. Zentroa irekitzeko eta ixteko ohiko ordutegia Iragarki-taulan jarrita egongo da.

##### **11. Artikulua**

Egoitzak ondorengo zerbitzuak eta instalazioak ditu:

- Taberna-Jantoki zerbitzua, gizon eta emakumeentzako ile-apaindegia eta podologia-zerbitzua.
- Instalazioak: Telebista ikusteko eta Jokoetarako gela, Liburutegia, Gimnasioa eta Tailerrak.

##### **11a ) Eguneko Zentroaren zerbitzuak**

###### **ORDUTEGIAK**

Taberna-jantokia, 9:00etatik 20:30era. 15:30ean, mahaiak jasota egon behar dute eta libre taberna-zerbitzurako.

Emakumeen ile-apaindegia, asteartetik ostiralera, goizez 9:30etik 13:30era eta arratsaldez 16:00etatik 19:30era. Larunbatetan goizez 10:00etatik 14:00etara.

Gizonezkoen ile-apaindegia, astelehenetik ostiralera, goizez 9:30etik 13:30era eta arratsaldez 16:30etik 19:30era. Larunbatetan itxita.

Podologia, astelehenetik ostegunera, goizez 9:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 19:00etara.

**Ordutegien** aldaketak Zuzendaritza Batzordeak egingo ditu, eta behar den garaian jakinaraziko dira iragarki-taulan. Ezarritako ordutegiak pertsona guztiek errespetatu behar dituzte, Egoitzak modu egokian funtziona dezan.

Emakidaduna ezberdinek **oporren** eskaera egiten badute, Zuzendaritza Batzordeak aztertuko du, eta baimena emango da Zuzendaritzaren oniritziarekin. Oporrak urtean gehienez hilabete batekoak izango dira.

Taberna-jantoki zerbitzuak eta Emakumeen eta Gizonezkoen ile-apaindegia, betiere Egoitzaren egoerak aukera emanez gero, adineko guztientzat irekita egongo dira, baina lehentasuna bazkideek izango dute.

Taberna-jantoki eta Ile-apaindegi zerbitzuen **prezioak** urtero berrikusi eta finkatuko ditu Zuzendaritza Batzordeak Zuzendaritzaren oniritziarekin eta Zerbitzuen emakidadunen arabera. Prezioen zerrenda jarrita egongo da Zerbitzua ematen den lokal bakoitzean jendeak ikusteko moduan eta iragarki-taulan oro har.

- Taberna-jantokiaren emakida duen enpresak eguneko menua jarri beharko du iragarkien taula orokorrean. Era berean, mahaian zerbitzatu beharko ditu menu horretan ageri diren janaria eta edaria. Aldiz, gainontzeko edariak zerbitzatzeko betebeharririk ez du izango, horiek mostradorean eskatu beharko baitituzte bazkideek.
- Mahaian zerbait hartu nahi duten pertsonen gomendatzen zaie lehenik mostradorean eskatu eta ordaintzea eta, behin amaituta, mostradorera itzultzea erabilitako tresna eta baxerak. Taberna-jantokian, mahaiak erabiltzen dituen edonork zerbait kontsumitu beharko du, jantoki-ordutegian izan ezik, orduan ezingo baitira mahaiak erabili edariak hartzeko.
- Ezin dira Taberna-jantokiko aulkiak lorategira atera, ezta ere bertara sartu lorategian dauden aulkiak. Edariak lorategian hartu ahal izango dira, betiere amaitutakoan baxera tabernara itzultzen bada. Tabernakoek jaso beharko dute lorategian egon daitekeen baxera eta higieñez arduratu beharko dute arratsaldeko ordutegian. Aulki eta mahai nahikorik ez balego, bazkideek lehenasuna izango dute bazkideak ez direnen aurrean.
- Emakume eta gizonen ile-apaindegietan, zerbitzu horien ardura duten enpresek erabiltzaile bakoitzari emango dio dagokion zenbakia; horretarako, bakoitza zein ordutan iristen den errespetatuko da.
- Podologia zerbitzurako, atezaintzan erreserbatuko da zerbitzua erabiltzeko eguna eta ordua.

### **11b) Eguneko Zentroko instalazioak**

ORDUTEGIAK:

Egoitza irekita egongo da goizeko 9:00etatik gaueko 21:00etara asteko lanegunetan; larunbata eta igandetan, goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara irekiko da.

Atezaintza goizez 9:00etatik 14:00etara irekiko da eta arratsaldeaz 15:30etik 20:00etara. Larunbata eta jaiegunetan 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 21:00etara.

- **Mahai-jokoak** (kartak, dominoa, xakea, damak, e.a.) eta jokoetarako mahai-oihalak atezaintzan eskatuko dira. Horretarako, bazkide-txartela entregatu behar da, eta bertan gordeko da, harik eta jolaserako elementuak itzultzen diren arte, erabiltzen amaitu eta gero.
- **Egunkariak eta aldizkariak** ere atezaintzan eskatuko dira. Horretarako, bazkide-txartela entregatu behar da, eta bertan gordeko da, behin horiek erabili eta gero itzultzeko. Zentzuzko denbora (ordu bat) gomendatzen da egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko. Ez da ere bidezkoa erabiltzen ari denaz gain egunkari gehiago hartzea, itxaroten egon daitekeen beste bati irakurtzeko aukera emateko. Gainerakoekiko errespetua izateko, ezin dira egin eguneko egunkarietako denbora-pasak eta gurutzegramak.
- Egoitza erabiltzen dutenentzat diren **besaulkiak, aulkiak eta mahaiak** ezingo dira erreserbatu bertan ez dagoen pertsonarentzat. Salbuespen gisa, Zuzendaritza Batzordeak aulkiak, besaulkiak

eta mahaiak nahiz kasu berezietarako aretoak erreserbatu ahal izango ditu, baina horren berri emango du aurrez. Ezin dira mahaietan edo aulkietan utzi lekua okupatzeko objektuak, bazkidea komunera joaten denean izan ezik; kasu horretan, gehienez 15 minutuko denbora emango da. Aulkiak erabili eta gero, mahai ondora hurreratuko dira, eta, beste leku batetik hartu badira, hartutako lekuan utziko dira. Aulkiak ezingo dira eraman gela batetik bestera edo tabernara.

- Esekitokietan eta euritako-ontzietan utzi behar dira berokiak eta aterkiak eta ez erabilitako aulkiaren ondoan.
- Leihoak, telebista, e.a. ohiko atezainak maneatuko ditu.
- Billar-gelan jolastu behar duten pertsoneri gomendatu nahi zaie zentzuzko denboran erabiltzeko (ordu bat), mahaiak ez biltzarren eta itzaroten dauden pertsonetikiko errespetua izate aldera.
- Liburutegian ezingo da zaratarik egin, ezta ozenki hitz egin ere, irakurleei eragozpenik ez sortzeko. Bazkideek liburuak erabili ahal izango dituzte eta etxera eraman irakurtzeko; dena den, gehienez hamabost eguneko epean itzuli beharko dira.
- Liburutegiko ordenagailua bazkideek erabili ahal izango dute, gehienez ordu erdiko denboran (30 minutu), ekipo informatikoa erabat ez okupatze aldera.
- Gimnasioari dagokionean, makinak eta elementuak behar bezala erabili behar dira, premiazkoak ez diren hondatzeak eta mantentze-lanak saihestearren.
- Salbuespen moduan, Zuzendaritza Batzordeak, aurrez abisatuta eta egoerak horrela eskatuz gero, Egoitzaren edozein jarduera eten ahal izango du beste batzuk egiteko; hala nola, dantzaldiak, jaiak, batzarrak, hitzaldiak, kontzertuak, e.a., betiere bateraezinak badira.
- Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek Batzar Aretoko giltza izango dute, eta Lehendakaritza, Lehendakariordetza eta Idazkaritzako karguek, giltza horrez gain, areto horretako armairuko giltza ere bai.

## V. KAPITULUA LAN-BATZORDEAK

### **12. Artikulua**

Egoitzaren berezko jarduerak hobeto garatzeko asmoarekin, behar diren batzordeak eratuko dira eta hasiera batean ondorengoak:

- 1.- Kultura eta Euskara
- 2.- Jaiak eta dantzaldiak
- 3.- Ibilaldiak eta bidaiak
- 4.- Okupazio-lantegiak
- 5.- Mendi-ibiliak
- 6.- Txapelketak eta bingoa
- 7.- Koroa

### 13. Artikulua

**Lan Batzordeak** Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok osatuko dituzte eta horrela eskatu duten bazkideek edo Batzordeak gonbidatu eta gonbidapena onartu dutenek. Izendapena Batzordeak hilero egingo duen bileran berretsiko da, eta dagokion Batzordeari atxikitzea Aktan jasota geratuko da.

Batzorde horiek beren kabuz bilduko dira eta, tarteka, batzordekide arduradunak eskatuta. Aldizka, proiektuen eta jardueren berri emango diote Zuzendaritza Batzordeari.

Une jakin batzuetan, baliteke Batzorde batek beste bati laguntza eskatu behar izatea. Laguntza hori kasu guztietan emango da, ahal den guztietan.

Batzorde horiek guztiak banatu eta egokitu beharko dira ahalik eta modu egokienean dituzten aurrekontuetara, eta egingo dituzten proiektuen berri eman beharko diote Zuzendaritza Batzordeari, Batzordeak onar ditzan. Zuzendaritza Batzordeak beharrezkoa ikusten badu, beste Batzorde batzuk osatu ahal izango ditu.

### 14. Artikulua

**Kultura eta Euskara Batzordearen** lana izango da kultur edo aisia jarduerekin zerikusia duen guztia proposatzea, antolatzea eta planifikatzea urte osoan zehar: hitzaldiak, batzarrak, kontzertuak, museo eta instituzioetara bisitak, e.a.

Era berean, haren eginkizuna izango da euskara-ikastaroak eta hizkuntzaren erabilera normalizatzeko jarduerak antolatzea. Halaber, liburutegiak funtzionamendu egokia izateaz arduratuko da eta Egoitzan egingo diren kultur ekitaldiak koordinatzeaz.

### 15. Artikulua

**Jai eta Dantzaldien Batzordeak** Egoitzaren jaiak, ospakizunak eta emanaldiak antolatuko ditu; horretarako, behar dena kontratatu edo eskatuko du horiek egite aldera. Gainera, harremanetan egongo da Auzoko Jai Batzordearekin, ospakizunak elkarrekin indartzearen.

### 16. Artikulua

**Ibilaldien eta Bidaien Batzordearen** egitekoa da urtean zehar egingo diren egun bateko edo gehiagoko ibilaldiak proposatzea, planifikatzea eta antolatzea; modu horretan, txangoen ibilbideak eta helmugak prestatuko dituzte dagoen aurrekontua kontuan hartuta.

Bidaia bakoitzaren xehetasun zehatzak planifikatuko ditu: ibilbidea, orduak, prezioa, geraldia eta izena emateko denbora. Hori guztia Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu eta ibilaldien urteko egutegia onartuko da, ondoren iragarki-taulan jartzeko.

### 17. Artikulua

**Okupazio Lantegien Batzordeak** Zuzendaritza Batzordeari emango dio garatuko diren jardueren berri; hala nola, eskulanak, pintura, zeramika, marketeria, ebanisteria, e.a.

Onarpen gehien duen espezialitateko ikastaroak antolatzeko proposamena egingo du, betiere behar den aurrekontua izanez gero, eta hori tailerretan parte-hartzea bultzatzeko asmoarekin.

Tailerreko giltzak atezaintzan eskatuko dira eta, behin lokala erabilia, berriro bertan entregatuko dira. Giltzak bazkide guztiek edukiko dituzte.

Bazkideek eskubidea izango dute lantegi ezberdinetan dauden makinak eta erremintak erabiltzeko, egin nahi dituzten eskulanak edo lan artistikoak burutze aldera.

Lanak pertsonalak edo pribatuak badira, materiala interesatuak ordaindu beharko du.

Saioa amaitzean, erabilitako tresnak eta erremintak garbi eta behar den lekuan jasota utziko dira.

### **18. Artikulua**

**Mendi-ibilien Batzordearen** helburua izango da mendira joateko paseoak edo ibilaldiak antolatzea eta behar diren taldeak osatzea ibilaldi horiek hobeto garatzearren. Era berean, jarraitu beharreko ibilbide ezberdinak, distantziak, atsedenaldiak, e.a. prestatu beharko ditu, bazkideen parte-hartzea sustatzearekin batera.

Aldi berean, kirol-arloarekin lotutako guztia koordinatu ahal izango du eta beste kirol-talde batzuk eratu.

### **19. Artikulua**

**Txapelketa eta Bingo Batzordearen** ardura izango da hainbat txapelketa sozial antolatzea, horien garapenaren berri jasotzea eta txapelketen inguruko arauak eta erregelamenduak prestatzea. Bazkideren bati laguntza eskatu ahal izango dio Batzordekide izateko, bereziki joko horien arauak ezagutzen baditu. Horrez gain, xakea, damak, dominoa, kartak, billarra, e.a. egoera onean izateaz arduratuko da, atezainen laguntzaz. Halaber, bingoaren asteko saioa eta azpiegitura antolatu beharko ditu.

### **20. Artikulua**

**Koroaren Batzordea** Koroarekin zerikusia duen guztiaz arduratuko da: entseguak eta emanaldiak zentro publiko nahiz pribatuetan eta beste koro batzuen bisitak eta emanaldiak Egoitzan bertan. Andres Isasi Musika Eskolarekin harreman onak izateaz ere arduratuko da.

## **VI. KAPITULUA SARIAK, FALTAK ETA ZIGORRAK**

### **21. Artikulua**

Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak Udalaren aurrean proposatu ahal izango du "ohorezko aipamena" ematea sari hori merezi duten bazkideei, Zentroaren alde bereziki lan egiteagatik, kargua dela-eta inolako betebeharririk izan gabe.

### **22. Artikulua**

Zigordun faltak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

#### **Falta arinak:**

- Bizikidetza eta elkarrekiko errespetuaren arauak aldatzea eta Zentroan egonezin-egoerak sortzea.
- Zentroko instalazioak eta bitartekoak behar ez bezala erabiltzea edo bertako jarduerak aztoratzea.
- Edozein erako istiluak, liskarrak edo haserrealdiak sustatzea eta horietan parte hartzea.

#### **Falta larriak:**

- Falta arinak behin eta berriz egitea; hau da, bi falta arin direla-eta zigorra izandakoan, sailkapen bereko hirugarrena egitea.
- Zentroaren, langileen edo beste edozein erabiltzaileen ondasunak edo edozein motako objektuak lapurtzea.
- Edozein prestazio edo zerbitzu jasotzearen inguruko datuak faltsutzea edo gordetzea.
- Dirua jokatzeko edo diru-kopuru handiko apustuak egitea. Soilik edariak edo zenbateko oso txikiak jokatu ahal izango dira jokalarien arteko eragingarri gisa.

### **Falta oso larriak:**

- Falta larriak behin eta berriz egitea; hau da, falta larria dela-eta zigorra izandakoan, sailkapen bereko bigarrena egitea.
- Beste bazkideei, Zuzendaritza Batzordeko kideei, Zentroko langileei edo Zentroarekin lotutako edonori eraso fisikoak egitea edo tratu txarrak ematea.
- Aitorpenak faltsutzea edo gordetzea edo datu okerrak eta nabarmenak aurkeztea bazkide-izaeraren inguruan.

### **23. Artikulua**

Izan daitezkeen gainerako erantzukizunak alde batera utzi gabe, aurreko artikuluan aipaturiko faltaren bat egin duten onuradunei ondorengo isunak jarri ahal izango zaizkie:

#### Falta arinak direla-eta:

- Hitzezko kargu-hartze pribatua.
- Banako hitzezko kargu-hartzea idatziz.

#### Falta larriak direla-eta:

- Bazkide-eskubideak etetea gehienez sei hilabeteko denboraldian.

#### Falta oso larriak direla-eta:

- Bazkide-eskubideak etetea gehienez bi urteko denboraldian.
- Zentroko bazkide-izaera behin betiko galtzea.

### **24. Artikulua**

Falta arin eta larrien bidezko zigorrak Zuzendaritza Batzordeak ezarriko ditu eta Zuzendaritza Batzordeko Lehendakariak aplikatu. Uneoro kontuan izango dira prozedura-bideak eta -arauak, eta Zentroko zuzendaritzaren onarpena behar izango da.

Falta oso larrien bidezko zehapenak Zentroko Zuzendaritza Batzordeak erabakiko ditu.

### **25. Artikulua**

Falta arinak bi hilabetera iraungiko dira, larriak lau hilabetera eta oso larriak sei hilabetera. Denak kontaktzen hasiko dira falta egindako egunetik aurrera, diziplinazko espedientea irekitzeagatik epe hori etendakoan izan ezik.

### **26. Artikulua**

Bazkideei ezarritako zehapenak bakoitzaren espedientean jasota geratuko dira. Ohar horiek kenduko dira, bazkide-izaera behin betiko galdutako kasuetan izan ezik, Zuzendaritzak ikuste badu zigorra izan duenak portaera normala izan duela 2 urteko denboraldian zehar, falta arinen kasuan jakinarazitako egunetik kontaktzen hasita, eta zehazpena bete duela falta larrietan edo oso larrietan.

Falta larriekin eta oso larriekin zigortutako bazkideek ezingo dute parte hartu hautagarri moduan Zuzendaritza Batzordea eratzeko hauteskunde-prozesuetan, dagokion idatzoharra baliogabetzen ez den bitartean.



## **27. Artikulua - Zehapenak aplikatzeko jarraitu beharreko prozedura**

1. Araudi honetan xedatutakoaren arabera falta moduan tipifika daitekeen gertaera Zuzendaritza Batzordearen aurrean salatutakoan, Batzordeak lehendabizi egiaztatuko du gertaera eta bi hereneko gehiengoarekin erabakia hartuko du:

- Lehenik eta behin, gertaeraren izaera egiaztatuko du, larritasuna definitze aldera.
- Bigarren, salaketa Erakunde titularrari bidaltzea erabakiko du, falta oso larria baldin bada.
- Bazkideen osotasun fisikorako zuzeneko arriskua dagoen kasuetan eta erabat salbuespen gisa, kautelazko neurriak hartzea erabakiko du.

2. Batzordeak falta arina edo larria dela erabakitzen duenean, ezarri beharreko zigorraren gaineko erabakia hartu beharko da, baina aurrez interesatuei eta lekukoei deituko zaie entzunaldia egiteko.

3. Faltza oso larritzat hartutakoan, Zentroko Zuzendaritzak Zuzendaritza Batzordeari laguntzeko instruktore moduan jokatu du, eta ahalik eta azkarren behar den ikerketa egingo du, indarrean dagoen araudiaren arabera egokitzat jotako proposamena emate aldera, behin interesatua eta lekukoak entzunda.

## **28. Artikulua**

Ezarritako zehapenaren aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da zehapena ezarritako organoaren beraren aurrean, eta, ondoren, gora jotzeko errekurtsua zuzeneko goiko erakundearen aurrean.

## **VII. KAPITULUA ZENTROKO ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA BESTELAKOAK**

### **29. Artikulua**

Zentroaren baliabide ekonomikoak Udalaren aurrekontuetan jarritako kopuruekin osatuko dira. Bestelako finantzaketa-iturrien artean egongo dira erakunde ofizialen diru-laguntzak, opariak eta/edo jarduera ezberdinen kudeaketaren bidez sortutakoak. Eskuratutako diru-sarrerak Diruzaintzan sartuko dira oso-osorik.

### **30. Artikulua**

Egoerak medio bazkide-izaera izatea lortu eta araudi honetan jasota aurkitzen ez diren bazkide guztiek lortutako eskubideak izaten jarraituko dute, norberaren izenean.

### **31. Artikulua**

Araudi hau indarrean sartu eta handik hiru hilabeteko epean, Udalera bidaliko da, hark berretsi dezan, hala badagokio.

### **32. Artikulua**

Araudia aldatzea Zuzendaritza Batzordearen egitekoa da, egoki baderitzo. Modu horretan, Egoitzaren egituraren edo funtzionamenduan aldatzea gomendatzen duten egoerak edo aldaketak gertatzen badira, Zuzendaritza Batzordeak Araudi hau aldatu, handitu edo murriztu ahal izango du.

### **33. Artikulua**

Araudi honetako artikuluetan jaso gabeko egoerak edo arazoak Zuzendaritza Batzordeak eta Egoitzaren Zuzendaritzak ebatziko dituzte.

### **34. Artikulua**

Araudiaren berri emango zaie bazkide guztiei, eta araudiaren ale bat iragarki-taulan jarrita egongo da.

Data eta sinadura

Ibar Nagusien Etxea Elkarteko  
Zuzendaritza Batzordea